

# bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko apirila | 008. zenbakia | 1,50€



HEGRA

## Antzinako sekretuen zaindari isila

ACEREDO | TESALONIKA | PRATT ETA HERMAN HESSEREN SUITZA | BALTIMORE | ALKURRUNTZ

# Badago ezagutzeko mundu bat



**bidaiari**  
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

## HARPIDETU ZAITEZ!

**URTEKO HARPIDETZA** Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

**Bidaiari** Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

|                         |             |            |  |
|-------------------------|-------------|------------|--|
| Izena                   |             |            |  |
| Abizenak                |             |            |  |
| Helbidea                |             |            |  |
| Herria                  | Posta Kodea | Herrialdea |  |
| NAN                     | E-Posta     | Telefonoa  |  |
| Kontu korrante zenbakia |             |            |  |
| Kontuaren Jabea         |             |            |  |

Nahiago izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoian azaltzen diren datuekin edo [www.naiz.eus/bidaiari](http://www.naiz.eus/bidaiari) web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruñia distribution & services, S.L. ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informazioak jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruñia distribution & services SL ren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

**bidaiari** 008

2022ko apirila

Zazpi Haizetara  
aldizkariaren 157.  
zenbakia litzatekeena

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Thomas SAMSON /  
AFP

**ARGITARATZAILEA:**

Astero.  
Herriar Berri SLU.  
Zazpi Haizetara  
aldizkariaren lan  
taldeak ekoiztua.

**EDITOREA:**

Eguzki  
Agirrezabalaga

**JATORRIZKO DISEINUA:**

Grafik Sarea +  
Artefakto

**MAKETAZIOA:**

Oiartso  
Los Arcos Urbina

**EGOITZA:**

Portuetxe, 23 -2. A  
20018 Donostia

**HELBIDE ELEKTRONIKOA:**

bidaiari@astero.net

**TELEFONOA:**

943 31 69 99  
[www.naiz.eus/bidaiari](http://www.naiz.eus/bidaiari)

**LEGE GORDAILUA:**

01361-2021

**INPRIMATZEN DU:**

Printek  
Inprimategia.  
Zamudio



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Gipuzkoako**  
**Foru Aldundia**



**28 SUITZA: BI GIZON ETA PATU BAKARRA** Hugo Prattek eta Herman Hessek Suitzan igaro zituzten euren bizitzetako azken urteak. Marrazkigile italiarrak izugarri miresten zuen idazle alemana, eta, horren erakusle, fikziozko pertsonaia ere bihurtu zuen Corto Maltese abenturazalearen eskutik. Trenez, itsasontziz eta oinez egin beharreko ibilbide ederrak bien azken urteetako bizilekuak lotzen ditu, hurrenez hurren Grandvaux eta Montagnola herrietan daudenak.



**06 TURISMOA UR AZPIAN** Ourense ingurua modan dago turismo arloan, Acereo herria azaleratu baita berriro, 30 urte urpean eman ostean, eta horrek jende andana erakarri baitu.

**14 TESALONIKA** K.a. 315 urrun hartatik, Tesalonika unibertsitarioz beteriko portu-hiri lasaia da, zeinaren historia eta kultur ondarea Egeo itsasoaren iparraldeko urdinean murgiltzen diren.



**56 HEGRA** Iragan urruneko herri misterioetsuei buruzko sekretuak eta informazio baliagarria isilean gordetzen duen zaindari baliotsu bihurtu da Hegra guneko arkeologikoa.



**36 BALTIMORE** Langile eta portu hiri zirrargarria da Baltimore, hamarkada luzez kulturak eta kontrakulturak indar handia izan duten leku interesgarria.



44 **BIDAIATU** Alkurruntz 50 **BERTATIK BERTARA** Makina erreminta museoa 54 **EGIN PLANAK!** “Milton Glaser. Kartelak”, Almadia Eguna Burgin, Zeinen Ederra Izango Den FEST... 60 **MUNDUAN PASIERAN** “Printze txikia”ren eskuizkribua; “La Joconde, exposition immersive”; Kal-kutako Kale Artearen Jaialdia; Etorkizunaren museoa; Makha Bucha jaia; “Itxi plastikoen iturria”, eskultura baten oihua...







# MIGRAZIO HANDIA

## Planetako ikuskizun basati ikusgarrienetako bat Serengetin

**B**asabizitzaren santutegi aberatsenetako bat da, planetako ikuskizun natural ikusgarrienetako bat hartzen duena: Migrazio handia. Serengetiko parkea da, “Lautada amaigabea”, non belarjale talde-ilara luzeek 3.000 kilometroko bidaia egiten duten, bizi-rik irauteko.

Milioi bat ungulatu baino gehiago –batez ere, ñuak, zebrak eta gazelak– Serengeti iparralde-rantz abiatzen dira lehorten garaian, larre fresko eta ur bila, paisaia ikaragarria eta burrunba izugarria eraginez. Urtero errepikatzen da irudi bera, erritu baten antzera: 3.000 kilometro egiten dituzte Kenyako Masai Mara Erreserba Nazionalaren eta Tanzaniako Serengeti parkearen artean, krokodilo gosetiz jositako ibaiak zeharkatuz eta gertu-gertutik zelatan izaten dituzten hiena, lehoi eta bestelako harrapakari trebeen artetik igaroz.

Iparralderako bidaia luzea maiatz aldera hasten da, euriteen amaierarekin eta Serengetiko urtaro lehorraren hasierarekin batera. Udaberri amaiera arte, talde handiak Parke Nazionalaren hego-ekialdean eta Ngorongoro ibaiaren kontserbazio-eremuaren inguruan egoten dira, baina, larrea eta ura agortzen direnean eta beroak atsedetik emateko asmorik ez duela sumatzen dutenean, urteroko zeharkaldi luze bezain zaila abiatzen dute leku emankorragoetara, elikagai bila. Alabaina, ez dute bidaia edozein modutan egiten, oso ondo antolatuta baizik: dozenaka kilometro luzeko ilaretan lerrokatuta, bidean dituzten arriskuen jakitun.

Abentura hasi ondoren, Maswa erreserban barrera Grumeti ibai arriskutsura iritsi eta, denak batera, elkar babestuz, beste aldeko ertzerabiatzen dira. Bizirik iristea da erronka. Asko ahaleginean hiltzen dira, itota, gaixotuta edo akituta. Bizirik irauten dutenak –milaka eta milaka– Masai Maran biltzen dira, sekulako natura ez-tanda eraginez, irudi basatia eta ikusgarria benetan. Gudkov ANDREY (GETTY IMAGES)









ACEREDO

# Turismo berezia ur azpian









**Ourense ingurua modan dago  
turismo arloan: Acedo herria  
azaleratu da berriro, 30 urte urpean  
eman ostean, eta horrek jende  
andana erakarri du. Bertan egon  
gara eta hau da bere historia eta  
bertakoen iritzia.**

Testua **Alessandro RUTA** Argazkiak **A.R./AFP/ Eurpa Press**

**U**rak liluragarri bihurtzen duten hamaika aurpegi ditu: zein bide hartzen duen azter daiteke; bizitza eta heriotza, biak eraman ditzake; ureztatuz bizitza sortzen da, baina uholdeak ere gertatzen dira. Lana ere eman dezake urak, eta leku batzuetan arreta handia sortzen du. Lehortea egonez gero, uraren patua desagertzea da. Eta orduan edozein gauza gerta daiteke: ur azpian guztiz ahaztua zegoena azaleratzea, esaterako. Zaborra izan liteke edo, Atlantida bezala, herri oso bat. Azken hilabeteotan hori gertatu da Galiziako Acedo herritxoan eta bat-batean erakargarri turistiko bihurtu da.

Lindosoko urtegia Espainiako Francisco Francoren eta Portugaleko Antonio Salazarren diktaduren arteko konpromisoaren emaitza da. Portugalek, orain dela 60 urte inguru, energia elektrikoaren behar larria zuen, eta, horren ondorioz, bi diktadoreok 1968an akordio bat zehaztu zuten. Horren fruitua Lindosoko urtegia izango zen, justu mugan: alde batetik, Portugalen, Lindoso herritxoa, eta, beste aldean, berriz, Lobios, Ourenseko probintzian. Urtegiaren %80 Estatu espainolean dago, baina uraren etekin gehienaren onuradun lusitaniarrak dira gaur egun ere; Portokoak, batez ere.









Urtegia eraikitzeko izugarrizko lana egin behar izan zen. Adibidez, bertan zeuden hainbat leku suntsitu behar izan ziren, uraren bidean zeudenak. Horietako bat izan zen Aceredo herrixka, orduan 150-160 biztanle zituen.

1992. urtera arte inguru oso lasaia izaten jarraitu zuen: eliza bat eta mahasti batzuk; oro har, nekazaritzara bideratutako lurraldea. Lur eman-korra baina, aldi berean, toki estrategikoa zen. Zinema izan ezik, dena zegoen, bi dantza-areto eta guzti. Kontrabandistak ere bazeuden, muga ia bertan dago eta.

**URTEGIA BETETZEKO PROIEKTUA** Horrela jarraitu zuen Portugalgo Gobernu eta EDP (Energias de Portugal) iritsi ziren arte. Urtegia betetzeko proiektuan ez zegoen lekuri Aceredorentzat; ur azpian geldituko zen. Inork ez zituen ukitu nahi ez etxeak ez zelaiak, baina biztanleak handik kanporatu behar zituzten.

Hogei milioi pezetako prezioa izan zuen herria husteak, sekulako dirutza; gaur egun, 120.000 euro izango lirateke. Garai hartan denak ez zeuden ados eta batzuek borrokari ekin zioten, amore eman aurretik. Euskal he-

**Ehunka lagun gerturatu dira azkenaldion Aceredo herrira; horien artean, herriminak eraginda, herria urpean gelditu aurretik bertan bizi izandakoak. Jakin-minak bultzatuta hurbildutako “turista” asko ere izan dira bertan. Ikusgarriak dira oso ur faltak agerian utzi duen paisaia.**



**Behealdean,  
benetako Aceredo  
ur azpian egon da  
1992tik gaur arte.  
Azken urteotan,  
poliki-poliki, oso  
euri gutxi egitearen  
ondorioz, urtegia  
lehortzen joan da.  
Eta hor  
ustekabekoa:  
herritxoa  
berragertu egin da  
eta turista gehiago  
bertaratzen dira**

rritarrei gogora etorriko zaie urte eskas beranduago Itoitz aldean gertaturikoa. Gehienek, aldiz, beste aukerarik ez zutenez, dirua poltsikoratzeari aukeratu zuten eta etxe berri bat eraiki zuten handik hurbil, apur bat gogorago.

Artxiiboetan arakatuz gero, testigantza hunkigarriak topatuko ditugu: «Bat-batean egin zuten dena, abisatu barik. Berehala ilundu zen; itotako oiloak eta igeri egin nahi zuten katuak ikusten genituen uretan, han-hemenka. Gurutze Gorriak lagundu zuen jende nagusia etxetik ateratzen». Eliza ere berreraikiko zuten, Compostela izeneko herritxoan, handik gertu, eta kanposantuko hilkutxa guztiak mugitu behar izan zituzten.

Dena den, gaur egungo Aceredok, Aceredo Novo izenez ezagunak, ez dauka zerikusirik aurrekoarekin. Etxe berriak zabal-zabalak dira, lorategiak eta igerilekuak dituzte, N-540 (Lugotik Portugalera) errepidearen mailakoak. Baina ia ez da inor bizi.

Behealdean, benetako Aceredo ur azpian egon da 1992tik gaur arte. Azken urteotan, poliki-poliki, oso euri gutxi egitearen ondorioz, urtegia lehortzen joan da. Eta hor ustekabekoa: herritxoa berragertu egin da eta gero eta turista gehiago bertaratzen dira.

**GASOLINA AGORTUTA** «2017an jada ur-maila nabarmen jaitsi zen; ez da berritasun bat», azaldu digu Aceredon bizi zen Josek, hotel baten eta bi gasolindegiren jabeak. «Pentsa, orain dela bost urte bertara joan nintzen, nire etxea zena berriz ikusteko asmoz. Ia berdin-berdin zegoen».

Josek eta Fina emazteak ez dute etxe berririk eraiki Aceredo Novon, baina gertu gelditu dira bizitzen. Bien gurasoek dirua jaso zuten herritik alde egin zezaten: «Aukera oso tentagarria zen: 20 milioi pezeta ez da gutxi gaur egun ere. Pentsa garai hartan! Batzuk triste zeuden, noski, baina espekulazioa ere izan zen. Izan ere, nahikoa zen Aceredon erroldatzea dirua poltsikoratzeko. Zenbaitzuek, urtegiaren berri jakin orduko, epe laburrean lau horma altxatu zituzten herrian. Aceredoko etxe batek, asko jota, 500.000 pezeta balio zuen», aitortu dute.

**TURISTA UHOLDEA** Azken hilabeteetan, Portugaletik eta Estatu espainoletik uholdea iritsi da berriz, bisitari uholdea. Guardia Zibilak zenbait pertsona kanporatu behar izan ditu, errepidea blokeatuta baitzegoen. Han gertu dauden bi gasolindegietan erregaia bukatu zen larunbat batean. Portugalen askoz garestiagoa da eta ehunka turista bertaratu ziren, aukera aprobetxatzeko.

«Gure herria aspergarria da, ez da ezer gertatzen –aipatu digu beste emakume batek–. Pandemia hasi eta gero, Galiziako Gobernuak agindu zigun gure arteko distantzia mantentzeko, birusa zabaldu ez zedin. Baina hori, dagoeneko, oso normala da hemen, oso jende gutxi bizi garelako».

Goizeko bederatzieta ez dago inor N-540 errepidean. Leku turistiko berezia den arren, ez dago kartelik, ez dago seinalerik, eta, gainera, Google Maps-ek ez digu asko lagundu, Aceredo Novora eraman baikaitu.



Errepidetik eskuinera hartu dugu: bihurgune pare bat eta gure parean zubi luze bat, Naua ibaiaren gainean. Zeharkatu eta gero, apur bat galduta egon gara, bueltaka. Atzera itzuli eta berriro zubia zeharkatu dugu.

Orain bai, ezkerraldean, behean, bonbardatuta dagoela dirudien herritxo bat dago. Ez gara konturatu “P” handi bat zegoenik, beharbada aparkaleku bat, erabat testuingurutik kanpo dagoen txalet baten ondoan. Txakur bat zaunkaka hasi zaigu. Txaletak laranjondo eta mandarinondoak ditu, loratzen.

Aparkalekuaren azpian, aldapa bat jaitsi behar da. Lurraren koloreak aldatu dira, nabarmen ilunagoak. Zalantzarik gabe, uraren markak dira. Ezkerrean, muinotxo baten gainean, jada hiru auto daude: bi matrikula Portugalekoak dira, horiak.

«Nik uste dut arrazoi beragatik gaudela hemen», azaldu du latinoamerikar itxurako gizon batek. Argazkilaria omen da. «Txilekoa naiz, baina Lisboan bizi naiz –aurkeztu du bere burua–. Behin Txileko Santiagon antzeko lan bat egin nuen, han herri abandonatu asko zeuden eta. Baina ez dute honekin zerikusirik».

Muinotik, urrunean, 4-5 pertsona ikusi ditugu, pasieran. Gure parean Aceredo dago, isil-isilik. Erreka lehor-lehor dago: normalean ur-maila zubi-raino iristen zen, baina gaur goizean putzu bat besterik ez da gelditzen. Iturriaren soinua entzun dugu. Harrigarria da oraindik ere ura ateratzea. Hori ere ur azpian zegoen.

**ZABORRA NONAHI** Iturriaren urak bideratu gaitu. Argazki zaharrei esker asma dezakegu nolakoa zen herria 1992an: etxeak –batzuek ez dute teilaturik–, mahastiak, dantza-aretoak, auto zuri bat (bertan zegoen edo errekek ekarri du? Auskalo!). Eta, batez ere, zaborra, zaborra nonahi: botilak, panpinak eta musukoak. Selfiak egiten ari den familia batekin topo egiten dugu: aita, ama eta alaba. «Vem pra cá», esan du gizonak («Etorri hona», portugesez).

Jaitsiera arriskutsua izan da. Urak lurra mugitu du gure azpian, erdi lokatz erdi hondar bizi bilakatuz. Bueltatuta osoa egiteko ordubete behar izan dugu, dena apur bat labirintikoa da eta. Koloreak deigarriak dira, gris bustiak: hormetan ehunka pertsonen idatzitako hitzak daude; batez ere, portugesezkoak.

Autora itzuli gara 10.30ean, eta aparkalekua bete-beteta dago ordurako. «Zein da herrira iristeko bidea?», galdetu digu beste bisitari batek gaztelaniaz, autoa utzi ondoren. «Jarraitu hemendik eta kontuz ibili aldapan», aholkatu diogu.

Zer nolako turismoa da hau? Zeren bila? Ponpeia berri bat, akaso? Ourenseko bidean errepidea ere autoz beteta dago, nahiz eta tabernarik ez egon, hurbilena Portugaleko mugan dago eta. Eguna eguzkitsua da; izotz-saltzaile baten furgoneta ere agertu da. «Berriro euria iristen bada, agur turistei, agur denari», esan digu Josek agurtu aurretik.









# Tesalonika, Egeoko burua












**Mazedoniako Filipo II.ak tesaliarrak garaitu zituen egun berean, berriro aita izan zela jakin zuen, neskato baten aita. Horrela bada, erregeak alabari Thesalonike izena jarri zion; alegia, “Tesaliaren aurkako garaipena”. Printzesa Mazedoniako Kasandrorekin ezkondu zen, eta honek, emaztearen omenez, fundatu berri zuen udalerriari haren izena eman zion.**

Testua eta Argazkiak **Xabier BAÑUELOS**

**K**.a. 315 urrun hartatik, Tesalonika unibertsitarioz beteriko portu-hiri lasai eta erakargarria bihurtu da, zeinaren historia eta kultur ondarea Egeo itsasoaren iparraldeko urdinean murgiltzen diren. Eguerdia da eta eguzki ederra ageri da zeruan. Terraza batean eserita nago, entsalada greziar bat jaten, *tzatziki* pixka batekin. Pepino, jogurt krematsu, baratxuri, olio, limoi eta mendafinaren lurrrin freskoa iristen zait, baina kalamata oliba beltzak, tomatea, tipula, piperra, pepinoa, oreganoa eta, jakina, feta gazta zati oparoak dituen entsalada ahoratuz hastea erabaki dut. Ez da bazkaria hasteko modu oso originala, baina bai oso propioa. Gainera, Kapani eta Modianoko azokak goizean goiz bisitatzeak baratzeko produktuak probatzeko gogo piztu dit.









Gaur, ia egunero bezala, Egeoak bere egun argitsu bat oparitu digu. Aristoteleous oinezkoen kalean giro bizia dago, ohi bezala. Beren eguneroko eginbeharretan dabil jendea parterreen albo banatan; arkupeetan, berriz, dendetara doazenak dabilta, baita eguzkitik babestu nahi dutenak ere. Bi elizgizon gurutzatu dira. Ez dakit popeak edo leromonatxoak, hieromonjeak (apaiz-monje), diren. Gazteak direnez, ez dira higumenoak edo artxi-mandritak izango, baina “klero beltza” dira, fraide ezkongabeak. Hemen, Grezian, halakoak ikustea gure herrialdean sotanadun apaiz bat ikustea baino arruntagoa da baina, hala ere, atentzioa ematen du.

Beren presentziak iraganeko garaietara garamatzate, 380ko otsailaren 27ra. Orduan agindu zuen dekretuz Teodosio I.a Handiak Tesalonikako Ediktua: «*Cunctos populos, quos clementiae nostrae regit temperamentum, in tali volumus religione versari, quam divinum Petrum apostolum tradidisse Romanis religiō (...)*». Horrela hasten zen errege-agindua, augustoren “errukitasunaren” pean zeuden herri guztiei «Pedro apostolu jainkotiarrek erromatarrei transmititutako» fedeari atxikitzen dei eginez.

Modu horretan, kristautasuna, bere bertsio nizearrean, Erromatar Inperioko erlijio ofizial gisa ezartzen zen. Eta historia aldatu egin zen. Eta Tesalonikan gertatu zen. Baina beren buru gaineko skufia lauak akaso are garrantzitsuagoa den urte batera garamatza, 1054ra; urte horretan Erromako Elizak eta Eliza ortodoxoak nork bere bideari ekitea erabaki zuten.

**Erreportajea irekitzen duen argazkian, Dorre Zuria, Tesalonikako ikurra. Hurrengo orrialdean, Galeriores Arkuaren erliebeak. Lerroon gainean, Errotonda eta minaretea, San Demetrio, botozko kandelak Panagia Deksan, Errotondaren barnealdea, Panagia Chalkeon, itsasontzi bat Adriatikotik portuan sartzen eta arrantzale bat itsas pasealekuan.**



**Greziar  
gastronomia  
esperientzia  
mediterraneo eta  
kulturaniztuna da;  
izan ere, inguru  
geografikoko  
herrialde  
ugarirekin (hasi  
Balkanetatik eta  
Ekialde  
Hurbilerainokoeki  
n) batzen duten  
ezaugarri ugari  
ditu**

Batzuentzat Ekialdeko Zisma izan zen, beste batzuentzat, Latindarren Zisma. Edozein kasutan, beren izaera definitu zuen.

**MODERNOA, ERROMATARRA ETA BIZANTZIARRA** Tesalonika herrialde heleniarreko bigarren metropolia da. Bere konurbazioak milioi bat biztanle baino gehiago ditu eta Erdialdeko Mazedoniako hiriburua da. Portu- eta industria-ingurunea da, eta toki xarmagarrian dago, Axios, Ludias, Galikós eta Haliacmón ibaien ekialdean, non Mediterraneo homerikoak badia bat lapurtzen duen Tesalonikako golkoa osatzeko.

Bertako bi unibertsitateek eta bere izaera irekiak hiri bizi eta gaztea bihurtzen dute. Gauez Valaoritou eta Ladakika auzoetara joanda ohartuko gara ez dela girorik falta, ez eta kopa bat hartzeko tokirik ere.

Baina, aldi berean, lasaia eta abegikorra da. Izan ere, momenturen batean estres arrastoren bat badugu, ilunabarrak itsas pasealekuan zehar gure begirada okre koloreez margotzera gonbidatuko gaitu, Palió Limánin hasi, Portu Zaharretik igaro eta Kípos tis Mousikis Musikaren Lorategiraino. Bide-erdian, atsedentxo ematen digute Zongolopoulos-en Aterkiek, airean zintzilik dagoen kapritxo artistikoak.

Aitzitik, ezin da esan ederra denik. Estetikari dagokionez, kanonetik urruntzen gaituzten harmonia ezak daude bertako kaleetan. Orduantxe azaleratzen da bere iragana indartsu, bere emari historikoari lotutako izaera hori, ondare erromatar eta bizantziarra zabaltzen duena, hondakin, jauregi eta elizaz zipriztindua. Unescok argi ikusi zuen eta 1988an Gizate-riaren Ondare izendatu zuen herentzia horren zati bat, “Tesalonikako mon-umentu paleokristau eta bizantziarrak” izenpean.

**GALERIOREN ARKUA ETA ERROTONDA** Multzoa osatzen duten ha-  
mabost monumentuen artean bat nabarmentzen da: Galerio enperado-  
rearen Arkua eta Errotonda. Arkuak marmolean kontaktzen ditu IV.  
mendeko tetrarkaren balentriak; ez dago argi eraikin zirkularra tenplu pa-  
gano edo mausoleo gisa jaio ote zen, baina Konstantino I.ak eliza bihurtu  
zuen, eta otomandarrek, meskita –hortik bere minarete estilizatua–.

Biek osatzen zuten jauregi-multzoaren hondarrak Navarinou plazan  
daude. Eta guztiak batera, aldi berean, antzinako *urbs*, hots, erromatar hi-  
riaren hondarrak dira, zeinaren harriak oraindik bizirik dirauten hipo-  
dromoan, Erromatar Foroan edota Kiprion Agoniston plazan.

Hortik aurrera, Bizantziok hartuko dio lekukoa Erromari, erritu ekialdetar  
ortodoxoko eliza multzoarekin eta bere ikur eta mosaiko ugariekin. Be-  
tiere antzinako hirigune historiko harresituaren barruan ageriko zaizkigu  
ondo ondo San Demetrio, Santa Sofia, Acheiropoietos, Santa Katalina,  
Elias Profeta, Apostolu Santuak, San Pantaleon, San Nikolas Umezurtza,  
Kristo Salbatzailea, Chalkeon Andre Maria eta Latomos eta Vlatadon mo-  
nasterioak.

Eta goialdean, Ano Poli auzoan, akropolian, Heptapirgion gotorleku bizan-  
tzia-otomandarra daukagu zain. Hemendik hiriaren bista onenez gozatuko



dugu, nostalgiak inguratuta, baina baita Pirovoleion, Bizantziar Bainuen gainean eta Trigonion dorrean dauden gazteen alaitasunak lagunduta.

**UNESCOZ HARAINDI** Salonika ez da hor amaitzen. Izan ere, itsaso ondoan hiriko irudi enblematikoena zutitzen da: Lefkós Pýrgos, Dorre Zuria. XVI. mendean eraiki zuen Suleiman Bikainak, lehenago zegoen beste baten gainean. Bere zilindro sendoa harresien parte izan zen eta gaur egun bere presentzia soilarekin argia ematen duen faro moduko bat da. Behealdean, Filipo II.aren eta bere seme Alexandroren estatuak daude.

Tenplu modernoan artean Panagia Deksia nabarmendu dezakegu, eragin neoklasikoak dituen tenplu neobizantziarra. Eta eraikin islamikoen artean, turkiarrek eremua beren agindupean izan zuten garai luzeko (1430 eta 1912 artean) hainbat nabarmentzen dira. Otomandar goiztiar estiloak bereziki interesgarriak dira, XV. mendekoak.

Horrela, Bursa motako meskitak edo T formako oinplanoa dutenak aurkitu ditugu (Alaca Imaret esaterako), Bey Hamam bezalako bainuak (Paradisuko Bainuak izenez ezagunak) edo Beziste bezalako bazarrak, zeina, bere izenak adierazten duen bezala, bedesten motakoa den; hots, itxia, laukizuzena eta kupuladun sabaia duena.

**MUSEOAK** Ezinbestekoak dira zenbait museo; esaterako, Arkeologikoa eta Bizantziar Kulturari buruzkoa. Ha=lere, Juduen Museoak aipamen berezia merezi du. XV. mende bukaeran hebrear herria erreinu iberiarretatik kanporatua izan zenean, sefardiak saldoka iritsi ziren Tesalonikara. Hainbeste bildu ziren bertan, ezen garai batean gehiengo judua zuen europar hiri bakarra izatera iritsi zen. Balkanetako Jerusalem esaten zioten.

Hainbat arrazoiengatik, XX. mendeko lehen hamarkadetan kolektiboa txikitzen joan zen pixkanaka. Gainbehera, ordea, naziak Grezia okupatu zutenean iritsi zen, oraindik Tesalonikan bizi ziren 56.000 juduetatik 49.000 deportatu zituztenean. Kasik guztiak hil ziren kontzentrazio esparruetan.

Museoak Tesalonikako juduen historian ibilbidea egiten du, K.a. III. mendetik II. Mundu Gerraraino, *djudezma* hizkuntzako komunitateari arreta berezia jarritz. Izan ere, Sefardi Ikasketa Zentroaren egoitza da.

Haragia bukatu berri dut, *païdakia* plater goxo bat. Arkume txuletatxoak dira, oliba olio, oregano, ezkaiz, piper alez eta mostaza haziarekin egin dako nahasketa batekin marinatuak... eta ondoren brasan eginak. Laguntzeko, patata frijituak, noski. Eta postrerako, *galaktobourek*o, *bougatsa* pistatxoekin eta *loukoumades*.

Greziar gastronomia esperientzia mediterraneo eta kulturantzuna da; izan ere, bere inguru geografikoko herrialde ugariarekin (hasi Balkanetatik eta Ekialde Hurbilerainokoe) batzen duten ezaugarri ugari ditu. Tesalonika ere halakoa da, greziarra, jakina, baina aztarna askokoa, konbinazio ugariakoa, are fusio askokoa ere. Tarte batean oraindik hemen zain geratuko naiz, denbora eta bizitza nola pasatzen den ikusiz. Arratsalde osoa geratzen da horiek aurkitzen jarraitzeko.

## GIDA PRAKTIKOA

### BESTE MUSEO BATZUK

Tesalonikan dauden museo ugarien artean honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Arte Garaikidearen Museoa. Lazaristen monasterioan. Costakis bilduma nabarmentzen da, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetakoa errusiar abangoardiari buruzkoa (Malevik, Kandinski, Popova, Rodchenco, Rozanova...).
- Gerraren Museoa. Herrialdea XX. mendean nahastuta egon den gatazka militarrei buruzko erakusketa. Bereziki interesgarria da II. Mundu Gerrarekin zerikusia duena.
- Dorre Zuria. Hiriaren historiari eskainitako museoa dago bertan.
- Ilusioen Museoa. Ilusio optiko eta bestelakoen artean tarte dibertigarri bat pasatzeko.

### ZINEMA JAIALDIA

Azaroko bigarren hamabostaldian egiten da eta nazioarteko zinemari, ondoko herrialdeetan egindako zinemari eta konbentzionalismoetatik ihes egiten duen zinemari eskainitako sailak ditu.

### BISITA HURBILAK

Hirian zenbait egun pasatuz gero, merezi du Aigal edo Egaseko (gaur egun, Vergina) eta Pela-ko aztarnategietara hurbiltzea (biak Mazedoniako Erreinuko hiriburuak momentu desberdinetan). Lehena gizateriaren ondare da, eta bigarrenean Alexandro Handia jaio zen.



# Artelan bihurtutako txankletak







ArgazkiaK: **Ishara S. KODIKARA**

**Orain urte batzuk, Kenyako zenbait emakume inguruko hondartzetan pilatutako txankletak biltzen hasi ziren, itsasertzean jasotako plastikoa birziklatu eta koloretako elefante, loro, arrain eta jirafa itxurako artelanak eta jostailuak egiteko. Urteek aurrera egin ahala, keinu hura, ozeanoko lehen tanta hura, enpresa sendo bilakatzen joan da, mundu mailako kutsatze arriskutsuaren aurka «arte handiz» borrokatzen jarraitzen duena.**



















lgen artean korapilatuta, hondar azpian lurperatuta, harkaitzetan kateatuta... Zoritzarrez, txankleta zatiak Kenyako hondartzetako eszenatoki itsusiaren parte dira egun. Ibaiek edo olatuek bultzatuta iristen dira, baita planetaren beste muturretik ere! Nahiz eta urteetan zehar tamaina eta kolore askotako txankletak pilatuz joan diren Kenyako kostaldeko itsasbazterretan, aspaldion, bitxia bada ere, pilaketaren abiadura geldoa da, baina inola ere ez gomazko oinetako gutxiago iristen delako, baizik eta ailegatu ahala bertako zenbaitzuk txankletak biltzen hasten direlako, ondoren birziklatzeko asmoarekin.

Proiektua Kenyako Ocean Sole enpresaren esku dago egun. Hondakin horiek eta plastikozko beste pieza batzuk eskultura edo jostailu koloretsu bihurtzen ditu. Eta, gainera, inoiz ez zaie materialik falta. «Aberatsa edo pobrea izan, denek txankleta pare bat dute», adierazi du Lillian Mulup enpresako ordezkariak. «Oso erabiliak eta merkeak dira mundu osoan, eta, beraz, zaharrak baztertu bezain pronto berriak eskuratzen ditugu inolako arazorik gabe».

Plastikoak eragindako kutsadura kezagarria da oso. Edonon aurki daiteke, faila ozeaniko sakonenetik hasi eta Artikoraino. Nonahi. Plastikoa aurkitu da planktonik mikroskopikoenean, baita baleen sabelean ere. Egund, %10 baino gutxiago birziklatzen da; gainerakoa, gehiena, zabortegetan edo ozeanoetan pilatzen da.

Kenyako Kilifi hondartzan paseo bat ematea nahiko da arazoaren larritasunaz ohartzeko. Plastikoa etengabe eta kantitate izugarrietan iristen da. Eta erraza da bertan jendea ikustea txankletak, botila-tapoiak, hortzetako eskuilak edo gozoki-bilgarriak biltzen. «Tona bat ere jaso dezakegu bi kilometro eskaseko ibilbidean», azaldu du Mulupik, goma berde zati txiki bat jasotzen duen bitartean.

Sally Adolwa ondoan du. Bera ere txankletak biltzen dabil etengabe. Hizketaldian parte hartu nahi du. Esan du aldiroaldi aurkitzen duela urrutiko herrialdeetatik iritsirako zaborra. Hondakinak Indiatik, Filipinetatik... etor daitezke. «Batzuetan gu ere harritu egiten gara».

Zuhaitz baten azpian, hondakinez betetako poltsa handiak sailkatzen ari dira, materialaren arabera. Plastiko gogorak eta PET botilak birziklatzaileei eskainiko dizkiete, baina txankletak, batez ere gomaz egindakoak, Ocean Solek erosiko ditu. Enpresak Nairobiko birziklatze-tailer batera bidaliko du zuzenean, non, garbitu ondoren, kolore anitzeko plakak osatuko dituzten.

Ondoren, dozenaka artisau, askotan arotz ohiak, plakak mimoz eta eskuz zizelkatzen hasiko dira esku artean eskulturak balituzte bezala. Jirafak, loroak, olagarroak, elefanteak, arrainak... Txikiak, handiak, izugarriak... Hamaika forma eta kolore. Gehienetan, animalia itxurakoak dira, nonbait jendeak gogoko dituelako eta erraz saltzen direlako.

Hori bai, erabilitako material kopurua harrigarria da benetan. «Artelan bakoitza egiteko 2.000 txankleta inguru behar dira», azaldu du Jonathan Lenato ekoizpen zuzendariak, zeinak azpimarratzen duen plastikozko oinetakoak hondartzetatik ez ezik, Nairobiko auzorik baztertuenetako ibai eta estoldetatik ere jasotzen dituztela.

«Astean 1,2 tona inguru jasotzen dugu. Kalkulatu hilabeteen, urtean (...) Hori txankleta pila bat da», ohartarazi du Lenatok. Ocean Solek dienez, guztira, urtean 750.000 eta milioi bat txankleta artean birziklatzen ditu eta lanaldi osoko ehun lanpostu inguru sortu. Nolanahi ere, jakin badaki plastikozko marea izugarriari egin beharko diotela aurre: hainbat kalkuluren arabera, 19-23 milioi tona plastiko metatzen dira urtero munduko uretan, eta datozen hamarkadetan kopuru hori nabarmen handituko dela aurreikusten da, garaiz esku hartzen ez bada behintzat.

Hastapenetan proiektua ozeanoan tanta bat besterik ez zen. 1997an, Jeanne Church itsas kontserbazionistak, hondartzetako hondakinekin erabat kezkatuta, proposamen kuriosoa egin zien Kiwayu uharteetako emakume kenyarrei: txankletak jaso, birziklatu eta koloretako objektu bihurtzea.

Ekimen xume hura Kenyako kostaldean zehar jarduten duen enpresa bihurtua da gaur egun. Nairobin du egoitza eta produktu guztiak birziklatutako materialekin fabrikatzen ditu. Eta beti Afrikan. Beti.



HUGO PRATT ETA HERMANN HESSE

# Bi gizon eta patu bakarra: Suitza

Testua eta argazkiak **Juanma COSTOYA**













**Prattek eta Hessek Suitzan igaro zituzten euren bizitzetako azken urteak. Marrazkigile italiarrak izugarri miresten zuen idazle alemana, eta, horren erakusle, fikziozko pertsonaia ere bihurtu zuen Corto Maltese itsasgizon abenturazalearen eskutik. Trenez, itsasontziz eta oinez egin beharreko ibilbide ederrak bien azken urteetako bizilekuak lotzen ditu, hurrenez hurren, Grandvaux eta Montagnola herrietan daudenak.**

**H**ugo Pratt idazlearen aurpegian urte gutxiren buruan txikituko zuen gaixotasunaren lehen aztarnak jada nabariak izaten hasiak zirela, Corto Maltese pertsonaiaren sortzaileak 1990. urteko telebista elkarrizketa batean aitortu zuen oraindik ere Samoako artxipelagora hitzordu batera joateko indarrak biltzeko gai izatea espero zuela. Izan ere, 1894. urtetik, bertan zain zuen Robert Louis Stevenson idazle ezagunaren hilobia. Ozeano Barreko txoko horretaraino egin asmo zuen peleginazioa idazle eskoziarrari egin beharreko omenaldi gisa ulertzen zuen Prattek, Stevensonen miresle sutsua baitzen. Are, eskoziarraren eragina argi eta garbi aurki daiteke marrazkilari eta historiagile italiarraren lan askotan.

Stevensonena ez zen, inolaz ere, 1927an Riminin jaio eta Ugo Pratt izenarekin bataiatutako idazlearen obran, eta baita bizitzan ere, aurki daitekeen eragin literario bakarra. Izan ere, Conrad, Hemingway, Borges, Hesse... bezalako idazle handien eragina ere agerikoa da Corto Malteseren berri ematen diguten biñetetan. Hori bai, Prattek idazle askoren ageriko eragina jaso bazuen ere, Hermann Hesse alemanaren kasua gainontzekoen gainetik aipatu behar da ezinbestean. Pentsa, Hesse “Le elvetiche: Rosa alchemica” komikiko pertsonaia ere bihurtu zuen Prattek; zehazki, komikian, idazle alemanak Montagnolako bere etxean hartzen du tradizio hermetikoarekin liluratutako Corto Malteseren bisita. Keinu horrekin, Prattek bere maisu literario nagusietakoa omendu nahi izan zuen. Hain zuzen ere, aipatu beharrekoa da bi idazleok, bata italiarra eta bestea alemana izan arren, herrialde berbera izan zutela bizitoki euren bizitzetako azken urteetan: Suitza.

**GRANDVAUX** Mundua zeharkatu eta Buenos Aires, Venezia, Londres eta Parisen bizi eta gero, Hugo Pratték Suitza hartu zuen bizitoki. Horretarako, Grandvaux izeneko herrixka bat hautatu zuen, Leman aintzira erraldoiari begiratzen dioten mahastiz inguratutako muino batean kokatutakoa. Bere bizitzako azken urteetan, Corto Maltese pertsonaiaren









Erreportajea irekitzen, Leman aintziraren frantziar eta suitzar ertzak lotzen dituen itsasontzia. Hurrengo orrialdean, Corto Malteseren estatua. Orrialde bikoitz honetan, Herman Hesse etxe-museoaren sarrera, idazlearen lan mahaia, Hugo Pratten hilobia, Lugano aintzira, Luzerna eta Lugano arteko trenak, Leman aintzira eta Herman Hesse etxe-museotik irteten diren oinezko ibilbideak adierazteko seinaleak. Hurrengo orrietan, Reuss ibaiaren gaineko Errotaren Zubia eta Luzernako aintzira.





sortzaileak bere etxearen eta herrikkako kanpandorre zaharraren arteko distantzia laburra oinez egitea atsegin zuen. Egun eguzkitsuetan, ohikoa zen Pratt gerizpean eserita ikustea, Leman aintzirako hegoaldeko ertza begiztatzen, edota euren geometriak lakuan bertan islatzen dituzten atzealdeko mendi ikaragarriak. Udazkeneko egun argitsueta, inguru guztiak patxadaz, zorionez betetako hunkidura igortzen du, barnera begiratzeko ezin egokiagoa den pastel-koloreko giroa sortuz; hala, ez da zaila Corto Malteseren sortzailea aintziraren parean irudikatzea, begirada galduarekin, dagoeneko gaztaroko indarrak ahulduta baina memoriarekin bere lanetan marraztutako geografietan barna bidaiatzen, beste behin ere, Amazonia, Etiopia, Siberia edo Ozeano Bareko uharteak bisitatzen.

Garai hartatik Grandvaux ez da asko aldatu begiratu batean. Lurrotan arau dira oraindik ere Suitzan hain maiteak diren anonimotasun nahia eta errespetagarritasun burgesa. Hori bai, Corto Malteseren egileak aztarna utzi zuen Grandvauxen. Hasteko, eserleku izan ohi zuen kanpandorrearen alboko bankuak bere profila du burdinar marraztuta bazter batean. Bertatik oso gertu, lorez inguratutako espazio geometriko txiki bat biribilduz, Corto Malteseren estatua dago, burua tente pertsonaiaren txapel bereizgarriaren azpian eta itsasgizon txamarreta airean. Estatuaren egilea Livio Benedetti da, Pratten lagun mina izan zena, eta Corto Maltese gazte, ameslari irudikatzen du, modu ia etereoan.

Oro har, bi bisitari mota hurbiltzen dira Grandvauxera. Autobusean heldu eta herrixka taldean bisitatzen dutenak turismo enologikoa egitera hurbildu ohi dira. Profil ezberdina izan ohi dute, berriz, bakarrik edo bikotean iritsi ohi diren helduek. Azken horiek izaten dira hilerrira gerturatu eta epitafiorik gabeko granitozko hilarri baten aurrean nor bere baitara biltzen direnak, marrazkilariaren gorpuzkiak bertan baitaude lurperatuta. Idazlearen izena eta jaiotza eta heriotza datak (1927-1995) inguratuz, esku anonimoez harri-koskorak eta maskorak jartzen dituzte bihotz forman. Hegal batean ontzi bat ere badago, Hugo Pratten eskuetatik irtendako abentura berrien umezurtz, komikigile italiarraren miresleek utzitako dozenaka eta dozenaka arkatx eta errotuladoreak hartzeko.

**LUGANO** Suitzan Hugo Prattetik Herman Hessera bitarteko bidea egiteak Suitza frankofonoko Grandvaux atzean utzi eta italieraz hitz egiten duen Montagnola komunitate helvetiarrera joatea esan nahi du. Bide motzena hartu ordez, hori bai, bi herrien arteko bidaia trenez egitea gomendatzen dugu, Alpeetako herrialdeko paisaiarik ikusgarrienetakoez gozatzeko aukera emango baitigu horrek.

Egia da, hori bai, belardiek mahastien lekua hartzen dutela, eta, Leman aintziraren inguruko atmosfera ia itsastarraren lekua, uhin formako muino berdeek. Luzernako geltoki zentrala ia-ia Lau Kantonamenduetako Aintziraren ertzean dago, Suitza iparraldeko hiriburuari portu hiri izatearen irudikeria eskaintzen dion beste barne “itsaso” erraldoi bat. Bertatik irteten dira bi ordu baino gehiagoko nabigazioaren ostean azken geltokira, Flüelen udalerrira, iristen diren bapore estilizatuak; bidaia osoa mendi ikusgarriak islatzen dituen ispilu baten pareko azalera likido lau-lauaren gainean egingo dugu. Suitzarren eraginkortasunari eta puntualtasunari



omen egiten dion eszenaratzea balitz bezala, baporeak atrakatzeko azken maniobra egiten duen bitartean, Luganora doazen bidaiariek ontzigainetik bertatik ikusiko dute hartu behar duten trena ondoko nasara hurbiltzen. Tesinoko hiribururaino eramango dituen tren panoramikoak “Gothard Express” izena du, San Gotardo pasabide historikoari erreferentzia eginez. Lugano, bere itxura hegoaldetarrarekin eta mendi arteko aintzirarekin, berehala izango dugu begi bistan.

**MONTAGNOLA** Luganotik Montagnolara, hau da, Hermann Hessek 1919an bere egoitza finkatu zuen herrira, autobusean erraz asko egin daitekeen ibilbide laburra besterik ez dago. Suitzar nazionalitatea eskuratu zuen idazle alemaniarrek oinezko txangoak egiteko zuen afizioa ezagututa, aukera ona izan daiteke Luganotik Montagnolara arteko bidea oinez egitea. Ordubete baino zertxobait gehiago nahikoa izango dugu Collina D'Oro barrutira heltzeko; bertan dago 1853an eraikitako Casa Camuzzi eraikin bitxia. Hain zuzen ere, etxe horretan kokatu zuen Hugo Pratten irudimenak Corto Maltesek Hesserri egindako bisita.

Urte batzuk geroago, beste pertsona batzuek, oraingoan bene-benetakoak, bisitatuko zuten idazlearen etxea. Izan ere, gerraren eta nazismoaren errefuxiatuek beti aurkitu zuten babesa Hessen etxean; are, idazlearen etxeak bisatuak, tren txartelak, lan baimenak... kudeatzeko bulego gisa funtzionatu zuen luzaroan. Lehen Mundu Gerran bizitako esperientzia traumatikoaren ostean, bakezale sutsu bihurtu zen Hesse, eta Suitzako bere etxean ekialdeko espiritualtasun eta mistizismoa ikertzeari ekin zion. Gaur egun, idazlearen ondarea jasotzen duen museoa Casa Camuzziri itsatsitako etxe batean gordetzen da.

Behin bertan, bisitariak idazle eta aktibistak izan zituen askotariko interesen berri izango du. Irakurketa, idazketa eta ikasketa beti izan zituen bidaide, baina marrazketak eta akuarelek ere pizten zuten alemaniarren interesa. Noski, ardoarekiko idazlearen gustua ezin da alboratu, ezta lagun hurkoekin biltzeko beti izaten zuen grina ere, publikoki agertzea beti saihesten zuen arren. Edota bere obrak sinatzeari uko egiten bazion ere.

Gaur egun, Hessek ez lituzke behin eta berriro bere pasiera luzeetan zehar katzen zituen muino oihantsuak ezagutuko. Aldaketak aldaketa, zerbaitek bere horretan jarraitzen du: Herman Hesserren lanak behin eta berriro argitaratzen dira oraindik ere egun. 1946. urtean Literaturako Nobel saria eskuratu zuen idazleak etenik gabe jarraitu du irakurle berriak bereganatzen. Euskaraz ere irakur daitezkeen “Siddhartha” eta “Estepako otsoa” maisulanak ebanjelioaren parekoak izan ziren erantzun bila begirada ekialdera begira jarri zuen europar gazteriarentzat.

Ez dakigu Hesse etorkizunean izango zuen eragina irudikatzera heldu ote zen, baina, hori bai, ziur idazle alemaniarrek inoiz ez zuela pentsatuko marrazkilarik bikain batek komiki bateko pertsonaia bihurtuko zuenik. Are gutxiago komikian izango zuen fikziozko mintzakidea abenturazale aberri gabe erromantiko bat izango zenik, liburuen maitale sutsua gainera. Azken finean, Hesse beraren alter ego-a: belarritako eta marinel txapel-dun Estepako otso bat.

## GIDA PRAKTIKOA

### NOLA HELDU

Modurik merkeena Milanera hegaldi merke bat hartzea eta bertatik Luganora trenez bidaiatzea izan daiteke. Suitzan sartzeko muga arazorik izaten ez den arren, kontuan izan posible dela pasaportea eskatzea.

### NOLA MUGITU

Trenak Suitzan espero daitekeen bezain azkarrak eta puntualak izan ohi dira. Txartelak aldeztu aurretik erosita eta ordu merkeenak hautatuta diru asko aurrezteko aukera dago.


### EKONOMIA

Suitza herrialde garestia da, eta, beraz, komenigarria da prezioak alderatzea ezer erosi aurretik. Atzeritarren negozio txikiak aukera ona izan ohi dira. Hotel batzuek doako garraio txartelak eskaini ohi dituzte.



BALTIMORE

# Jazza eta portua











**Hiriaren izenak begirada arraroak sortzen ditu oraindik ere sarritan, kriminalitatearekin lotzen duen fama oso presente baitu Baltimore hiriak. “The Wire” bezalako kultuko telesailek ekarri zioten lehendabizi sona, eta ezin uka zenbait auzune behartsutako egoerak ere hauspotu duela hiriaren irudi hori. Erreala da hori guztia, baina Baltimore langile eta portu hiri zirrargarria ere bada, hamarkada luzez kulturak eta kontrakulturak indar handia izan duten leku interesgarria.**





**A**EBetako historian ere garrantzi berezia izan du Baltimorek, bai portuak, bai bere auzuneetan sortutako arteak eta musikak. Figura horietako baten memoriak ekarri gaitu hirira, eta barne-portuan egindako berrikuntza interesgarriekin osatu dugu bisita. Washingtondik oso gertu dago, ordu bete baino gutxiago, trafikoa ondo egonez gero. Trenez etortzea ere aukera ona da. New Yorkera doan trenbidean ezinbesteko geltoki izanik, gainera, merezi du, zalantzarik gabe, bertan geratzea, hainbeste sufritu duen hirian txangoa egitera.

Tren geltokitik oso gertu dago unibertsitatea, Bolton Hill eta Mt Royalen. Arteak berebiziko garrantzia izan du Baltimoren beti; MICAk (Maryland Institute College of Art) ia 200 urte ditu eta AEBetako arte-eskola zaharrenetakoa da. Eraikin nagusia 1961 arteko tren geltokian dauka, eta handik hurbil dago Brown Center egoitza ikusgarria ere.

**Erreportajea zabaltzen duen irudian, Baltimoreko portua Chesapeake badiaren ertzean, Estatu Batuetako historian ere garrantzi berezia izan duena, hiriko auzuneetan sortutako arteak eta musikak bezala. Billie Holiday eta Edgar Allan Poe ere gogoan ditu hiriak.**











**Baltimore portu  
zaharra da,  
zalantzarik gabe,  
hiriaren  
biziberritzearen  
lekurik  
esanguratsuenetak  
oa eta bisitari  
gehien erakartzen  
dituena. Billie  
Holiday eta Edgar  
Allan Poe ere  
gogoan ditu hiriak.**

Mount Royal auzune interesgarrian ospatzen dute 1982tik Artscape jaialdia. AEBetako doako festibal artistiko handiena da. Lau hamarkadotan egondako izarren artean, musikako erraldoiak daude, hala nola Aretha Franklin edo Ray Charles. Azken urte biotan bertan behera geratu da, baina, ondo bidean, uda honetan berriz ere antolatuko dute. Jaialdi handiaren neurrik gabe baina giro horri eusteko asmoz, igande goizetan Baltimore Farmers' Market & Bazaar nekazari azoka eta bazarra egiten dute Jones Falls errepidearen azpian.

**JAZZAREN GUNE** Billie Holidayren urratsen atzetik, MICAtik W Lafayette kalean behera, Pennsylvania etorbideraino jarraitu dugu kantariaren estatua aurkitzeko. Billie Holiday ez zen hirian jaio –Philadelphian sortu zen– eta AEBetako hegoaldean talde supremazistek egiten zituzten lintxamenduak salatzeke egin zuen “Strange Fruit” abestiaren bertsioa New Yorken zabaldu zen bereziki. Baina inongoa izatekotan, Baltimorekoa zen Holiday, txikitatik bertan bizi izan zelako; hori bai, oso bizimodu gogorra izan zuen hirian, besteak beste, haurra zela bortxatu egin zutelako eta bertako neskato beltzentzako erreformatorioan giltzapean ere izan zutelako. Gero New Yorkera joan zen amarekin eta han ekin zion kantari karrerari, baina behin eta berriz itzuli zen Baltimorerara.

Halaxe, hiriko alaba kuttunaren omenezko monumentuan jarri dugu lehen geltokia. Hiriko beltzen historiaren eta kulturaren gune garrantzitsu den Upton auzunean dago (biztanleen %90 dira afro-amerikarrak), behinola hainbat jazz lokal izan zituen Pennsylvania etorbidean. Horieta batean oraindik kantuan balego legezk erakusten du Billie Holiday monumentuak, emanaldi beteetan. James Earl Reid eskultore beltzak egin zuen, baina ez zen inauguraziora joan 1985ean: hark diseinatutako oinarria garestiegia zelakoan, zementuzko idulkia jarri zioten. Ia mende laurden gerago ezarri zuten egungo hamar tonako oinarria; Holidayren kanten testu eta irudiak ditu, “Strange Fruit” gogorrena esaterako, supremazista zuriak beltz bat nola lintxatzen duten deskribatzen duena.

Hurrengo geltokira bidean, hiriko erdigunetik hurbil, Westminster eliza presbiterianoaren paretik igaro gara. Bertako hilerri txikian dago ehortzita Baltimoreko beste figura garrantzitsuenetako bat: Edgar Allan Poe. Zertxobait mende balderago, W Lexington kalean, Poeren etxea izandakoan museo txiki bezain interesgarria dago. Urri hasieran, idazlearen heriotzaren urteurrenaren inguruan, literatura jaialdia antolatzen dute.

Billie Holidayren arrastoan, hiriko erdigunerantz goaz, Oriole Park zeharkatuta. Bertan dago Camden Yard, garai bateko tren geltokiaren izenez bataiatutako beisbol zelaia. Egun ere bertan jokatzen du Baltimore Orioles taldeak. Maskota gisa duten txoriak ematen du pistarik zer den oriole, Marylandeko estatuko armarriko hegaztia (Icterus galbula). Beisbol zaleek Babe Ruth jokalaria mitikoaren etxea ere badute gertu ikusgai.

**PORTUAREN GARRANTZIA** Mt Vernon auzune historikoa utzi dugu atzean, George Washingtonen estatua handia erdigunean duela. Uptonen aldean, nabarmena da aldaketa ekonomiko eta demografikoa, zuriak dira hemen biztanleen erdiak baino gehiago. Hiriaren ekialderantz goazela,



itsas giroa eta taberna ugari dituen Fell's Point auzunera, giza-paisaian elementu latinoak ere nabari da, 80ko hamarkadatik Mexiko eta Amerika Erdialdeko jende asko heldu baita.

Erraza da Billie Holiday bizi izan zen kalea aurkitzea, S Durham kale es-tuan kantariaren mural koloretsu bezain ikusgarriak baitaude Bank Street eta Eastern Avenue artean, lasai paseatu eta txundituta miresteko. Ingu-ruan, mundu osoko zaporeak dastatzeko aukera dago: jatetxe mexikarra, poloniarra, libanoarra... Erdigunerantz joatea erabaki dugu, hala ere, barne-portua baino lehen dagoen nortasun bereziko auzunera: Little Italy.

Bizpahiru kale baino ez dira Mediterraneo ertzetik Ipar Amerikaraino iri-tsi zirenen ondorengoek eraikitako auzunea, baina xarma berezia du eta pasta bikaina gozatzeko aukera ere eskaintzen du. Columbus Park –bai, Kolon italiar-amerikarrek harro aldarrikatu ohi duten figura da– Italiako banderaz betetako parkea da, portuko dike eta moiletan galdu aurretik. Aldamenean dauka President Street Station, herrialdeko tren geltokirik zaharrena; eraikin dotorea da inguruko etxe-orratzen kontrastean.

**ONTZIAK** Baltimore portu zaharra da zalantzarik gabe hiriaren bizibe-rritzearen lekuri esanguratsuenetakoa, eta bisitari gehien erakartzen di-tuena. Chesapeake fiordo luzeraino doan Patapsco itsasadarraren inguruan eratutako barne-portuak elementu historiko edo moderno ba-tera zaramatza urrats bakoitzean. Lehenak 1855eko Seven Foot Knoll itsa-sargiaren parean utzi gaitu, bosgarren moilaren aldamenean. Eraikin gorri ikusgarriaren jatorrizko lekua ez da egun portuan ikusten duguna, ibaiaren amaieran baitzegoen, mareak iristen diren lekuan, zaharkituta eta erortzeaz; 1988an lekualdatu eta hamar urte geroago egungo kokagu-nean ezarri zuten.

Hurrengo urratsek portu giroa indartzen dute, itsasontzi historikoen al-damenean paseoan; bosgarren moilatik laugarrenera igarota, Pier Four Power Plant edo Pratt Street Power Plant enpresa zaharraren eraikinak ontzien tximiniak irudikatzen ditu. Egun Hard Rock Cafe ezagunaren gi-tarra erraldoi ikonikoa ere aurkituko dugu bertan.

Halaxe iritsi gara Maryland estatuko lekuri bisitatuenera: Baltimoreko National Aquarium. 40 urte bete ditu, eta egungo beirazko eraikina, 6.000 metro koadrokoa, 2005ekoa da. Solairu bakoitzean elkarri lotutako era-kusketak daude, eta bi tanke handi ere baditu; batek Atlantikoko koral arrezifea irudikatzen du eta itsaso zabala besteak.

Akuariora bidean “USCGC WHEC-37” gerra-ontzi zaharra utzi dugu atzean (Pazifikoko erabilia Bigarren Mundu Gerran, eta kostazain lanetarako ge-rora), eta segidan beste ontzi historiko batzuekin egin dugu topo: “USCG Lightship Chesapeake” eta “Tussock” urpeko ontzia, esaterako. 1854ko “USS Constellation” ere badator atzetik. Ibilbideak Patapsco ibaiak itsasora-tzeko eratutako bihurtuneak jarraitzen ditu Federal Hill-eraino; portuko ikuspegiak nola aldatzen diren ikusi ahal izango dugu. Federal Hill-en, portuaren amaieran, aukera dago atzera Little Italy auzoraino eramango gaituen txalupa hartzeko, eta hiri interesgarri honi agur esateko.

## GIDA PRAKTIKOA

### NOLA IRITSI

Baltimoreko aireportua, Washingtoneko beste biekin batera aurkeztu ohi da. Europara Londresera baino ez ditu hegaldiak, baina praktikoa da AEBetan barna bidaiatzeko. Euskal Herritik, posible da New Yorken eskala egiten duen hegaldiren batekin iristea. Osterantzean, tren bidaia laburra da Washingtondik Baltimorera, eta zertxobait luzeagoa New Yorketik.

### NON OSTATU HARTU

Turismoan nahikoa inbertitu arren, eta zer erakutsi ugari badu ere, ez da turista gehien erakartzen dituen hiria, eta leku askotan prezio xumeak ere badaude, AEBetako beste leku batzuen aldean. Ez da hotelik falta hiriko erdigunean, baina asko dira Washingtonen ostatu hartu eta egun-pasa datozenak.

### NOLA MUGITU

Metro sarea dauka Baltimorek, baita autobusak ere (1,60 dolar edo 3,50 dolar egun osoko txartela).







ALKURRUNTZ

# Txoko ederrak, historia aberatsa

Testua eta Argazkiak Andoni URBISTONDO

**Bailara berezia da Baztan. Mendi garaiek inguratzen dute: Saioa, Hauza (Autza), Gorramendi edo Alkurruntz bera, Baztango piramidea. Bidasoa Baztan ibaiak erdibitzen du, eta herri txikiz zipriztindutako bailara ederra da, bere baitan historia aberatsa duena: Amaiurko gaztelua, Pirinioetako bunkerrak, Gorramendin estatubatuarrek eraiki zuten base militarra... Turismorako ere oso leku aproposa da, bai Baztan bera, bai Alkurruntz tontorretik iparrera dagoen Xareta bailara.**





**Erreportajea irekitzen duen orrian, Alkurruntz gailurra Artzubietako menhirrak dauden tokitik ikusita. Orrion gainean, bidean aurki daitezkeen bunkerretako bat, eta, ondoan, Alkurruntz gailurreko harri pilaketa. Azken bi orrialdeetan, berriz, Alkurruntz gailurrera daraman azken tartea eta bi mendizale Baztango mendietan oso ohikoak diren pottokekin.**

**M**endi buelta batek ezaugarri anitz eduki ditzake. Gorputza astindu eta egun osoko bueltan txoko asko ezagut daitezke. Txango lasaiagoa ere egin daiteke, eta mendi inguruneaz gain, tontor horretatik gertu dauden hainbat turismo aukerarekin gozatu. Bigarren aukera proposatzen du irteera honek: mendi buelta lasaia egin eta irakurlearen baitan utzi eguneko beste orduak nola probestu. Egin beharreko ahalegina: Alkurruntz mendia, 934 metrokoa, Baztan bailarako piramide eza-guna, Lizarmeaka lepotik. Lepo hori Otsondo mendatetik gertu dago, eta ordu pare batean buelta erraza eginda egin genezake joan-etorri osoa. Ondoren, eta aukeran, hainbat pizgarri hamar kilometroko bueltan.

Alkurruntz mendiak Amaiur herria dauka hegoaldera eta, herritik gertu, gure aberriko eta nafarren historia gordetzen duen gotorleku historikoa izan zena, Amaiur gaztelua. Gaztelak Nafarroa konkistatu aurretik iraun zuen azken erresistentzia-txokoa izan zen, 1.512 urtean. Bertako monolitoak bisita merezi du, noski. Pirinioak muga geografiko eta estrategiko garrantzitsua izan dira betidanik, eta horrek borroka franko eragin ditu Baztan aldean historian barrena. Horien arrastoak presente daude.





**Alkurruntz  
mendiak Amaiur  
herria dauka  
hegoaldera eta,  
herritik gertu,  
kilometro  
eskasera, gure  
aberriko eta  
nafarren historia  
gordetzen duen  
gotorleku  
historikoa izan  
zena, Amaiur  
gaztelua.**

Alkurruntz mendia bera, esaterako, bunkerrez josita dago. Dozena bat badira, gutxienez, Betarteko Haitzak eta Alkurruntz banatzen dituen Zureta lepoan hasita. Espainiako Gerra Zibilaren ostean eraiki ziren defentsa guneak dira, Gipuzkoa eta Nafarroako mugen artean, aurrena, eta Pirinioak mendilerro osoan ondoren. Francoren diktadurak iparraldetik etor zitezkeen inbasioei aurre egiteko eraiki zuen Vallespin izeneko defentsa lerroa (Valles Pirenaicos-en laburdura). Pirinio osora zabaldu ostean “Linea P” izena jarri zioten, Pirinioetako Defentsa Lerroa. 10.000 bunker eraikitzeke asmoa zuten, baina 6.000 jarri zituzten azkenean. 6.000 bunker, erraz esaten da.

**BASE MILITARRAREN ARRASTOAK ITZULEGIKO LEPOAN** Alkurruntzetik gertu dago Gorramendi mendigunea, Otsondo mendatetik hamar kilometrora, hautsi samar dagoen errepidean barrena. AEBek base militarra kokatu zuten Itzulegiko lepoan, Gorramendi eta Gorramakil tontorren magalean, 60 hektareako eremua. Bi tontorretan antenak eta radarrak jarri zituzten, eta bi hamarkadan egon zen martxan, 1954tik 1974ra. Urte horretan eraitsi egin zuten, baina arrastoak agerikoak dira gaur egun, batez ere antena eta radarrenak. USAFena izan zen base militarren egunerokoa zaintzeko ardura (United States Air Force, AEBetako Aire Indarra).





Gerta liteke kontu militarren historiak arreta gehiegi ez sortzea irakurlearengan. Horientzat ere bada zer ikusi franko. Infernuko Errota, adibidez, Lizarmeaka lepotik Lekarozko Orabidea auzora daraman errepide estuan, aparkalekutik hamaika bat kilometrora. Karlismo garaiko errota da, gerra hartan funtsezkoa izandakoa.

Baztan atzean utzi eta Xareta bailaran ere bada zer ikusia. Xareta Nafarroako Urdazubi eta Zugarramurdik eta Lapurdiko Sara eta Ainhua herriek osatzen dute. Urdazubiko Erdi Aroko zubiak edo bertako monasterioa bisitatzen orduak oharkabeen pasatuko dira. Leizeen bisitak ere jende asko erakartzen du Urdazubi, Zugarramurdi eta Sara herrietara. Asteburuetan tentuz ibili, muga lurra den neurrian, Ipar Euskal Herriko jende asko hurbiltzen baita herri hauetara, salneurriak Ipar Euskal Herrian baino merkeagoak direlako Nafarroan.

**ERRAZA, EROSOA, IKUSPEGI EDERREKOA** Alkurruntz igoera erraza da. Lizarmeaka lepotik oso agerikoa da igoera. Piramidea inguratzea da aukera onena, baina zuzen-zuzen ere irits daiteke gailurra ordu erdi pasatxoan.

Hareharri bloke handiek osatzen dute gailurra, eta tarteka eskuak ere erabili beharko ditugu zutik mantentzeko. Zuzeneko bidea egitea edo piramidea inguratzea erabaki beharko dugu Artzubietako menhir-ak dauken tokian, 750 metrora. Tontor osoa inguratu gabe ere gailurrera aise





irits daiteke belar maldetan gora, baina maldak tenteak dira. Piramide itxura zerbaitegatik du Alkurruntzek, eta zorua bustita badago, tentuz ibili behar da.

Ziztu bizian iritsiko gara Zureta lepora, eta han bunker bat azalduko zaigu. Baita Betarteko Haitzak eta Gorramendi eta Gorramakil gailurre-tako antena zatarrak ere. Ordu laurden eskaseko bidea dugu gailurre-raino, harkaitz artean, baina eskailera eta guzti topatuko du mendizaleak, igoera ahalik eta erosoan egiteko. Eskailera igotzen hasi aurretik dago, hain zuzen ere, mendi honetako bitxikeriarik handiena: lurrikarak neurtzeko behatokia. Nafarroa eta Baztan lurrikara txikien gune izaten da sarri, eta Alkurruntz mendian detekzio behatoki bat dago.

Hortik gailurrera minutu pare bat baino ez, eta gailurrean, Alkurruntzen benetako altxorra, ikuspegi dotorea. Kantauri itsasotik ekialderantz da-goan mendi garaiena da Alkurruntz, Larhun eta Arxuria baino garaiagoa, eta tontorretik dena dauka magalean. Iparrerantz Xareta bailara, eta La-purdiko kostalde osoa, Donibane Lohizunetik Baionaraino. Ekialde eta hegoaldera, Pirinioetako lehen tontor garaiak, martxo hasieran zuriz jantziak: Saioa, Hauza eta Adi mendia. Urrun, Orhiko Kukulla ikusten da, eta Erronkariko goi mendi elurtuak ere bai. Eta haien magalean, Baz-tan ibar berdea, bere herrixka txiki eta etxaldez ziprztindua, benetan ederra zeruetatik ikusita. Gaineko oroitzapen gozoak ahazterako Lizar-meaka lepoan izanen gara bueltan, nekatu garen edo ez jabetu gabe.

## GIDA PRAKTIKOA

### KOKAPENA

Alkurruntz mendiak Baztan eta Xareta eskualdeak banatzen ditu, Nafarroa iparrean. Hegoaldera Amaiur herria dago; iparrera, Urdazubi.

### NOLA IRITSI

Ipar Euskal Herritik, Donibane Lohizunen Azkaine eta Senpererantz egin behar da, eta han, Dantxarinea eta Urdazubi aldera. Otsondo mendatea pasatu eta berehala dago bidegurutzea Lizarmeaka lepora. Baztan aldetik, Elizondora joan behar da, eta han Otsondo mendatera daraman errepede onari jarraitu.

### EZAUGARRIAK

Alkurruntz 1.000 metrora iristen ez den tontor ederra da, 934 metrokoa, piramide itxura duena bailaratik ikusita. Inguruan urrun ditu mendi garaiagoak, eta bista zoragarriak ditu. Mendi bueltaz gain, hainbat pizgarri dituen txangoa da.



MAKINA ERREMINTA MUSEOA

# Ondare industrialaren historiaren «fabrika»

Testua Eli TXAPARTEGI Argazkiak MAKINA ERREMINTA MUSEOA

**Jakina da Debabarrena Gipuzkoako industria-  
garapenaren erdigune garrantzitsuenetakoa izan dela.  
Eta zenbait hamarkadatan eskualdean «fabrikatutako»  
historiaren memoria gal ez dadin, hortxe dago  
Elgoibarko Makina Erreminta Museoa, sistema zaharrak  
martxan ikusteko aukera eskaintzen duen museo bizia.**

**E**ramangarriak ez diren makinak, kanpoko energia-iturri batekin jardunez metalak konformatzen dituztenak, txirbil-harroketak, talka, presioa, prozedura elektrikoak edo aurrekoen konbinazio bat erabiliz». Horixe da, hitzez hitz, metalak lantzeko makina-erreminten definizioa, CECIMO Makina Erreminta Industrien Lankidetzarako Europako Batzordeak 1958an zehaztutakoaren arabera.


Makina-erremintekin soilik egin daitezke beste makina eta osagarri metaliko batzuk, baina ma-

kina-erreminten ezaugarri bereizgarriena zera izan daiteke: auto-erreproduktzioarako duten gaitasuna. Merkatuan dauden makina, osagarri eta produktu metaliko guztiak makina-erremintak erabiliz egin dira.

Hori guztia oinarritzat hartuta eraiki zen 1998an, Elgoibarren, Makina Erreminta Museoa. Helburu nagusia honako hau zen: «Gure historia industrial eta bertako protagonistak izandako gizon-emakumeak gogoratzea». Irekieratik urte dezente pasa ondoren, esan daiteke helburua lortu dutela, errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera eza-gutzeko museo aparta baita Elgoibarkoa.







Egia esan, 1982an sortu zen museoa egiteko ideia, elektronikaren eta informatikaren garapenaren ondorioz sortutako iraultza industrial berriak eraginda, bereziki. Aldaketok makineria parkea berritzera behartu zuten eta makina zaharrak «historiko» bihurtu ziren berehala. «Gure aitzindariak egindako makina-erreminta adierazgarrien eredua berreskuratzek gure herrialdearentzat izango lukeen garrantziaz konturatu ginen», azaldu zuten proiektuaren sustatzaileek. «Balio izugarria duen ondare industrial ordezkatu dezakete eta, agian, museo espezializatu baten oinarria izan». Azkenik, 1994 eta 1998 artean, museoa sortzeko lehen urratsak eman ziren. Eta 1998an inauguratu zen.

Guztira 420 metro koadroko azalera erabilgarria du museoak eta hiru nabetan banatuta dago. Nabe nagusian, XIX. mende amaierako mekanizazio tailer baten erreprodukzioa dago. Eskuinaldekoan, berriz, Erdi Aroko gela dago, eta, ezkerreko nabean, Patxi Aldabaldetrecu gela.

**MEKANIZAZIO TAILERRA** Mekanizazio tailerrean, gure aitzindariak egindako makina-erreminten modelo adierazgarrienak ikus

daitezke martxan; adibidez, tornuak, zulagai-luak, fresatzaileak, eskuilak, zerrak... bisitariak.

Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer bateko giroa zintzoki erreproduzitzen du mekanizazio tailerrak. Bi isuriko estalkia du, egurrezko bi zinbria deigarrirekin eutsita; horietatik euskarriak eta ardatz eragileak zintzilikatzen dira, euren polea eta uhalekin. Transmisio sistema motor elektriko baten bitartez jartzen da martxan. Motorra, uhal baten bidez, ardatz zentralera lotuta dago, zeina transmisio sistema beraren bidez (poleak eta uhalak), bigarren mailako bi ardatzi lotuta dagoen. Horrez gain, argazki erakusketa iraunkorra dago ikusgai, herriko ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapenaren ibilbide historikoa jasotzen duena.

**ERDI AROKO ARETOA** Erdi Aroko gelan, berriz, errementeria bat ikus daiteke, beharrezko tresna guzti-guztiek osatua: ingudeak, kurrikak, mailuak... Hainbat produktu fabrikatzeko erabiltzen zituzten errementeriak, hala nola, ferrak, burdin sareak, iltzeak, nekazaritza tresnak,





armak eta sukaldeko eguneroko tresnak. Ikusgai dauden tresna guztiak Elgoibarko Ibarlucea familiaren errementeriatik berreskuratu zituzten. 1983. urtera arte egon zen zabalik.

**LAU GREMIO ARMAGILE** Tradizio armagina ere nabaria da Erdi Aroko gelan. Jakina da Debarreneko sektore garrantzitsuetakoa izan dela luzaroan armagintza. Horren erakusle da 1756ko Lamoten Grabatuaren erreprodukzioa. Debaren arroko industria tradizio handia egiaztatzen duen dokumentu historikoa da. Grabatu horrek askotariko marrazkiak eta testuak ditu eta arma ekoizpenaren fase ezberdinen eta ekoiztutako modeloen informazio ugari eskaintzen du. Gainera, grabatuaren beheko aldean, lau gremio armagileren deskribapena ageri da: kanoigileak, kutxagileak, aparailugileak eta giltzariak.

Kanoigileak su-armen forjaketa egiteaz arduratzen ziren. Zeregin nagusiak kanoien forjaketa eta lima bidezko akabera ziren. Kanoilarien gre-

mioaren barruan, grabatzailea ere bazegoen, amaitutako kanoietan urrezko inkrustazioak eta grabatuak egiteaz arduratzen zena. Txispaginak, berriz, tiroaren mekanismorako piezen muntaketa egiteaz arduratzen ziren; kaxagileak, kuletak egiteaz eta kutxetan kanoia, giltza eta aparailuak muntatzeaz; eta aparejugileak armaren aparailuak edo pieza osagarriak egiteaz eta beste gremioek egindako elementuak muntatzeaz arduratzen ziren, baita armaren azken entregaz ere, kutxagileekin batera.

Espazio hau artisauek egindako makinekin osatuta dago: baskulariek erabilitako pedal tornua, eskopeten kanoien zuzengailua eta eskuz eragiteko eta bola bidezko aurreratzea duen mahai gaineko zulatzeko makina.

**PATXI ALDABALDETRECU ETA SIGMA** Azkenik, hirugarren gelak museoko lehenengo presidentearen izena dauka, Patxi Aldabaldetrecu. Erakusketak industria tradizioaren eta





**Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Gure aitzindariak egindako makina-erreminten modelo adierazgarrienak ikus daitezke martxan; adibidez, tornuak, zulagailuak, fresatzaileak, eskuilak, zerrak... Horrez gain, aspaldiko argazkiak ere ikusi ahal izango ditu bisitariak, batez ere garai haietako langileenak.**

Estarta y Ecenarro enpresaren ibilbide historia-koa erakusten du. Bertan dira ikusgai enpresa elgoibartarraren hainbat Sigma josteko makina eta baita nazio-mailakoak ere, esaterako, Alfa, Singer eta Titania Kay & Co.

Sigmak, noski, izen propio eta leku berezia du museoan. Gerra Zibila amaitzean, 1939. urtean, Estarta y Ecenarro enpresako kudeatzaileek marka horretako josteko makinak egitea erabaki zuten, Eibarko Alfa enpresa konfiskatu egin baitzuten. Langile asko gerran hil ziren, beste askok ihes egin zuten edo espetxeratu egin zituzten. Makineria, berriz, guztiz sakabanatuta zegoen.

Enpresak Kart Rübel Wirt aditu alemanaren-gana jo zuen, zeinak Alfa josteko makinaren di- seinuan eta fabrikazioan parte hartu zuen. Estarta y Ecenarro Olasora lekualdatu zen eta bertan josteko makinak egiteko pabiloi berriak eraiki zituzten. Makinen fabrikazioan, emaku- mezkoen lana ezinbestekoa izan zen, batez ere

muntaketako eta akaberako prozesuetan. Bes- talde, Estarta y Ecenarro enpresak ez zion utzi makina-erremintak egiteari.

Lehenengo josteko makina Cima izenarekin merkaturatu zuten, baina denbora gutxira en- presak markaren izena aldatu behar izan zuen, Suitzako erlojugile batek “Cyma” patentea zue- lako bere erlojuentzat. Enpresak kontinente guztietako 50 herrialde baino gehiagotara es- portatu zituen Sigma josteko makinak. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka eskaera jaitsiz joan zen: egindako arroparen eskaintzak gora egin zuen eta etxekoandreek etxean josteari utzi zioten. Ondorioz, josteko makina gutxiago saltzen ziren eta, azkenik, 1995ean, Estarta y Ecenarro en- presa itxi egin zuten.

Egun, museoak zazpi kabina industrial ditu, ba- rruko nahiz kanpoko guneeetan erabiltzeko ego- kituta eta alokairuan daudenak. Barruko solairuak ere alokatzen dituzte.





# “Milton Glaser. Kartelak”, Arte Ederren Museoan

## OTSAILAK 8-EKAINAK 26

Bilboko Arte Ederren Museoan, Milton Glaser artistaren hogeitik gora kartel daude ikusgai. Ekainaren 26ra arte egongo da zabalik berrogei urteko ibilbideko (1967-2011) lanak biltzen dituen monografikoa.

Bildumagile batek dohaintzan emandako 48 lanen artetik aukeratu dituzte museoan ikusgai daudenak, antolatzaileen ustetan, diseinatzailearen ibilbide zabal eta askotarikoa egokien erakusten dutenak.

Erakusketako kartelik berrienak 2011koak dira eta zaharrenak, berriz, 1960ko hamarkadaren amaierakoak.

Glaser artista newyorktarraren artelanekin Arte Ederren Museoak bere kartel bilduma handitu du.

Bere ibilbide luzean, 2020ko ekainean hil zen arte, bostehun kartel kultural, komertzial edo erreibindikatzaile baino gehiago diseinatu zituen. Sorkuntzarik eza-gunenetakoa “I love New York” eslogan eta logotipoa da. Kontua da ez zuela erregistratu. Glaserrek New Yorkeko Cooper Union Unibertsitatean ikasi zuen eta, ondoren, Bolonian, non Giorgio Morandi margolaria izan zuen maisu.

Behin bere herrira itzulita, Push Pin Studios sortu zuen, diseinu grafikoaren esparruan erabat iraultzailea izan zena.



## Almadia Eguna Burgin, Aezkoa ibarreko kultur ondarea erakusten duen jaia

**APIRILAK 30**

Egoera aldatzen ez bada, apirilaren 30an Almadia Eguna ospatuko da Burgin. Beraz, bi urtetako hutsunearen ondoren, herri nafarra festa giroan murgilduko da eta, beste behin ere, basoan ateratako egurra ibaian zehar garraiatzen zuten arbasoak izango dituzte go-goan.

Unerik hunkigarriena eta ikusgarriena herriko presan almadiek jauzi egiten duteneko izaten da, ehunka ikusleren arreta bereganatzen baitu. Aurten ere, noski, emakumeek parte hartuko dute.



## NAIZ eszenatoki berezia, Zeinen Ederra Izango Den FEST jaialdian

**APIRILAK 2**

Apirilaren 2an Barakaldoko BECen egingo den Zeinen Ederra Izango Den FEST jaialdian, NAIZe parte hartze aktiboa izango du, antolatzaileekin adostutako akordioari esker, kartel nagusiko taldeak NAIZ eszenatokian ariko baitira: Los Chikos del Maiz, ETS, Gatibu, Zetak, Iseo & Dodosound, Maria Arnal & Marcel Bages, Ptazeta, Tanxugueiras eta Zoo.

Gainerako taldeak honako hauek izango dira: Ezpalak, Dupla, Bengo, Lildami, Motxila 21, Maren, Sua, Luna Ki, Adrianna Gaultier, Anne Lukin eta Ene Kantak.

Pello Reparazek zuzentzen duen proiektuak iaz iragarri zuen jaialdia egiteko asmoa eta lekua, eta berehalakoa izan zen erantzuna, kartela ezagutzera eman aurretik 2.000 sarrera saldu baitziren. Publiko guztiarentzako ekitaldia izan nahi du jaialdiak. «Guztiok elkarrekin lan egiten dugunean zer egiteko gai garen erakusten duena –diote antolatzaileek–. Gure jendearekin elkartzeko aitzakia da».



## BEDERATZI ETAPATAN EUSKAL HERRIARI AUTOZ BIRA EMATEKO PROPOSAMENA

“Euskal Herriko Bira-Autoz egiteko ibilbide handia” Suak argitaratutako bidaia-proposamena da Euskal Herriari itzuli osoa emateko.

Bederatzi etapatan gailurrak, itsasoa, basoak, mortuak, metropoliak eta urrutiko herrixkak bertatik bertara ikusteko aukera eskaintzen du Jordi Bastart egileak.

Etapak 120 kilometro luze dira, batez beste. Azken amaitzean 1.130 kilometroko bira osatuko du bidaiariak, gehiena bigarren mailako errepideetan zehar.

Jakina, norberak aukera dezake ibilbidea non hasi, baina liburuak Bilbo proposatzen du abiapuntu gisa.

**Euskal Herriko bira-Autoz egiteko ibilbide handia**  
Jordi Bastart

Sua Edizioak, 2022  
272 orrialde.





# Hegra

## Antzinako sekretuen zaindari isila

Testua **Eli TXAPARTEGI** Argazkiak **Thomas SAMSON (AFP)**





**Antzinako zibilizazioen bidegurutze komertzial estrategikoa izan zen Hegra (Al-Hijr edo Madain Saleh ere deitua), eta, gaur egun, iragan urruneko herri misteriotzuei buruzko informazio baliagarria isilean gordetzen duen zaindari bihurtu da, bereziki Nabatear Erresumaren ingurukoa. Saudi Arabian gaude, sekretuz eta giro misteriotzuz inguratuta.**









**Sekretuak isilean gorde izan dituen zaindari isila da Hegra. Antzinako zibilizazioen bidegurutze estrategikoa izan zen, eta, horregatik, iragan urruneko herri misterioetsuei buruzko informazio baliagarria gordetzen du gaur horma artean, batez ere nabatear erresumaren ingurukoak. Egun, giro misterioetsua da nagusi gune arkeologikoan.**

**B**i mila urtez isilik egon ondoren, Hegra publikoari irekitako arkeologia gune garrantzitsu bilakatu da. Pentsa, zenbait arkeologoren ustez, «Petra hiriaren ahizpa arkeologikoa» da, begien bistakoak omen direlako bien arteko parekotasunak. Al-Ula basamortuaren iparraldean kokatua, Hegra nazioarteko merkataritza gune oparoa izan zen. Nabatear Erresumako bigarren hiri nagusia ere izan omen zen, zenbait adituren esanetan.

Hori bai, arkeologo guztiek argi dute Hegrako aztarnak oso garrantzitsuak direla eta beharrezkoa dela ahalik eta ongien kontserbatzea, pareko altxorrik ez delako beste inon aurkituko. Beldur dira nabatear zibilizazio aurreratuaren sekretuak ez ote diren lurpean ahanzturan geldituko. Madain Saleh aire zabaleko museoa denez, «historia asko dago hemen aurkitua izan zain», diote.

**TURISTEI ZABALIK** Hebra 2019an ireki zen lehen aldiz nazioarteko turismoa; beraz, esan daiteke oraindik ere ez dela helmuga ezaguna, ez behintzat beste zenbait arkeologia gune bezainbeste. Alabaina, historialari asko kezkatu daude, uste dutelako turismoari ateak kontrolik gabe zabalduz gero, Petraren urrats berberak jarraituko dituela, zoritxarrez. Izan ere, Petrak milioi bat bisitari inguru izaten ditu urtero eta, ondorioz, Unescok galzorian dauden munduko ondareen zerrendan sartu du.

Gune arkeologikoaren isolamendua defendatzen duten arkeologoek diotenez, Hegra ezinbesteko artxibo historikoa izan daiteke altxor hori eraiki zuen erresuma ezagutu ahal izateko; hau da, inoizko zibilizaziorik enigmatikoenaren sekretuak ezagutzeko. Nabatearrak basamortuan bizi ziren nomadak ziren, eta K.a. IV. mendearen eta K.o. I. mendearen artean bizi izan ziren. Arabiatik eta Jordaniatik Mediterraneora, Egiptora, Siriara eta Mesopotamiara bitarteko ibilbideak kontrolatzen zituzten. Merkataria eza-gunak ziren, bereziki espezienak. Intsentsua eta mirra bezalako produktu usaintsuen merkataria ere baziren, garai hartan oso preziatuak zirenak, batez ere, erlijio-zeremonietan.

**ONDO KONTSERBATUTAKO HILOBIAK** Gamelu karabana luzeak igarotzen ziren etenik gabe Hegratik, piperbeltzez, jengibre-sustraiz, azukrez edo kotoiz kargatuta. Gaur egun, 111 hilobi biltzen ditu bertako gune arkeologikoak, xehetasunez zizelkatuak eta ondo kontserbatuak. Hilobi handienak, Lihyan Son of Kuza, 72 oineko garaiera du.

Aztarnategiak gordetzen duen aberastasuna hain da garrantzitsua, ezen Unescok Saudi Arabian munduko ondare izendatutako lehen lekua den, nabatear zibilizazioa ongien kontserbatu den tokietako bat delako. Horrela goraipatzen du Unescok, hitzez hitz, munduan bakarra den konplexu arkitektonikoa: «Fatxada apainduak dituzten hilobi monumentalak ditu, kontserbazio egoera onean daudenak, K.a. I. mendearen eta K.o. I. mendearen artekoak. Gainera, nabatear kulturaren aurreko berrogeita hamar bat inskripzio eta labar-pintura ere baditu aztarnategiak. Beraz, aparteko testigantza da, zalantzarik gabe. Bertako putzuak eta 111 hilobi monumentalak, horien artean 94 apaindutakoak, nabatear arkitekturaren eta teknika hidrauliko aurreratuaren erakusgarri bikainak dira».



## MUNDUAN ZEHAR 22 URTEZ

1928ko auto batean bost kontinentetan 362.000 kilometro egin ondoren, Zapp familia Buenos Airesera itzuli berri da, duela 22 urte hasitako abenturari amaiera emanez. Zehazki, bidaia hiriburuko Obeliskoan bukatu dute, bertatik abiatu baitziren 2000ko urtarrilaren 25ean Candelaria eta Herman Zapp. Hori bai, bidaian zehar jaiotako lau seme-alabak ondoan itzuli dira etxera.

Abiatu zirenean, sei hilabeteko bidaia zuten aurreikusita eta 4.000 dolar bakarrik zituzten poltsikoan. Lehenik, Alaskan ibili ziren eta, ondoren, Afrikan, Ozeanian, Asian eta Europan. Munduan zehar ibiltzeko erabakia hartu zute-nean, euren lanak utzi egin zituzten.

Norbaitek 1928ko autoa eskaini zien, Graham-Paige bat, motorraz eta pinturaz oso gaizki zegoena, baina, hala ere, Alaskarantz abiatu ziren birritan pentsatu gabe.

Gaur egun diote hasierako amets txiki hura uste baino zoragarriagoa izan dela, espero baino aberasgarriagoa. Une alaiak eta gogorrak izan dituzte ibilbidean, baina denak kabitzen omen dira euren motxiletan. J. MABROMATA (AFP)



## «PRINTZE TXIKIA» MAISULANAREN ESKUIZKRIBUA

Parisko Arte DekoratiBoen Museoak Antoine de Saint-Exupery idazleari eskainitako erakusketa-aren protagonista nagusia, zalan-tzarik gabe, «Printze txikia» obraren eskuizkribua da.

Ekainera arte zabalik izango den erakusketak sekulako ikus-mina eragin du, eskuizkribua orain arte ez baita inoiz ikusgai izan frantziar Estatuan. 2014an erakutsi zen lehen aldiz, New Yorken. S. SAKUTI (AFP)





## «LA JOCONDE, EXPOSITION IMMERSIVE», MARSEILLAN

“La Joconde, exposition immersive” izenburupean, Giocondaren inguruko erakusketa berezia dago zabalik, abuztura bitartean, Marseillako Palais de la Bourse aretoan. Bisitariak Leonardo Da Vinciren obra ospetsuan murgildu ahal izango dira Mona Lisaren erretratua zehatz-mehatz erakusten duten pantaila erraldoien bidez. N. TUCAT (AFP)



## IZOTZEZKO KOLISEO TXIKI BAT HIMALAIAN

Chilling herrixkan, Ladakh eskualdeko iparraldean, Himalaian, 3.350 metrotara, Kangsing artista taldeak koliseo txiki bat eraiki du, ibai izoztu batetik motozerraz moztutako izotz-lauzez osatutakoa. Instalazio bitxia Chadar hasieran dago kokatuta, pandemiaren ondorioz bi urtez itxita egon den mendi ibilaldi ezagunean. M. ARHAAN ARCHER (AFP)



## KALKUTAKO KALE ARTEAREN JAIALDIA

Berger Paints elkarteak antolatuta, Kalkutako Kale Artearen Jaialdia egin berri da, pandemiak eragindako bi urteko hutsunearen ostean.

Beraz, beste behin ere, horma-irudi koloretsuz eta artistikoz bete dira Kalkutako kaleak, Indiako hamaika tokitako hainbat arlotako artistak elkartuz.

Hirian zehar sakabanatutako grafitiak deigarriak dira oso, eta hiria gune dinamiko eta koloretsua bihurtu da azken urteotan zenbait egunez. D. SARKAR (AFP)





## MILA URTEKO PERUKO MOMIAK

Peruko arkeologoek hogei momiaren hondakinak aurkeztu berri dituzte, zortzi haur tartean. Adituen arabera, eskaintza gisa hil omen zituzten, duela mila urte inguru, Cajamarquillan, Limako kanpoaldean. Peruko arkeologia zentroko arduradunek uste dute Wari zibilizazioko momiak direla. C. BOURONCLE (AFP)



## ETORKIZUNAREN MUSEOA, ZABALIK

Etorkizunaren Museoa, azkenik, zabalik da Dubai. Proiektuak punta-puntako azken teknologiak esperientzia-bidaiei zerbitzura jarri nahi ditu, munduari plataforma handi bat eskainiz etorkizuna aztertzeko, irudikatzeko eta diseinatzeko. Hori omen du helburu museoak. K. SAHIB (AFP)



## BAINU HOTZA ZIRKULU POLAR ARTIKOAN

Ezaguna da saunaz gozatu ondoren ur izoztuetara jauzi egiteko finlandiarrek duten tradizioa, baina, hala ere, horrelako irudiak harrigarriak dira oraindik ere Eskandinaviako kultura urrutitik ikusten dutenentzat. Zirkulu Polar Artiko oso gertu egindako argazkia da. O. MORIN (AFP)





## MAKHA BUCHA JAIA

Makha Bucha jaia ospatu da Thailandian, ilargiaren egutegiko hirugarren hilabeteko ilargi beteko egunean, bu-dismoaren gertakari garrantzitsu bat oroitzeko: Budaren argiztapenetik bederatzi hilabetera, 1.250 monje bildu ziren maisuaren oinarritzko printzipioak (Ovodhapati-mokha) ikasteko.

Macha ilargiaren egutegiko hirugarren hilabetearen izena da, eta Bucha hitzaren esanahia “gurtu” da. J. TAYLOR (AFP)



## FRIDA KAHLOREN ERAKUSKETA BEREZIA

San Frantziskoko SVN West guneko Lighthouse ArtSpace aretoan, Frida Kahlo protagonista duen erakusketa berezia dago ikusgai ekainera bitartean. Artista mexikarraren artelanen animazioak proiektatzen dira hormetan zintzilikatutako pantaila erraldoietan, efektu erabat berezia eta erakargarria sortuz. J. SULLIVAN (AFP)



## “ITXI PLASTIKOEN ITURRIA”, ESKULTURA BATEN OIHUA

“Itxi plastikoen iturria”. Horrelaxe izena du Benjamin von Wong ekintzaile eta artista kanadarrak Nairobiko auzo handienetako batetik, Kiberatik, berreskuratutako hondakin plastikoekin egindako eskulturak. Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren (NBGP) egoitzaren aurrean dago kokatuta artelan aldarrikatzailea. TONY KARUMBA (AFP)





Lurralde  
berrietara  
goaz

**bidaiari**

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz